

HAZILUR, ELIKADURA SEKTORERAKO EUSKAL FONDOA

Sozietatearen izena

Hazilur Enpresen Sustapena, S.A.

IFK

A01451400

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 2008ko azaroaren 24an egindako eskritura publiko bidez eratu zen. 2009ko otsailaren 17an Arabako Foru Aldundiak sozietateari baimena eman zion enpresen sustapena helburu duen zerga-araubidea aplikatu zezan, arau honen 60. artikuluan ezarritakoari jarraituz: [24/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa](#). Horrek guztiak 2008ko hasieratik aurrera ditu ondorioak.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

8299 Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jarduera batzuk.

Helburu soziala

Sozietateak xede hauek ditu:

- Enpresak sustatzea edo bultzatzea, haien kapitalean aldi baterako parte hartuta (20 urtez, gehienez).
- Aholkularitza-zerbitzuak, laguntza teknikoa eta beste laguntza batzuk ematea, sozietateak berak edo lehen aipatutako kideek parte hartutako sozietateen administrazioarekin, egitura finantzarioarekin zein produkzio- edo merkaturatze-prozesuekin lotura dutenak, batez ere sozietatearen beraren edo bere kideen partaidetza duten sozietateentzat.
- Funts propioen adierazgarri diren balioak erostea, kudeatzea, administratzea eta besterentzea, Espainiako lurraldean zein kanpoan egoitza duten erakundeei dagokienez, bitarteko materialak eta pertsonalak antolatzearen bidez.

Halaber, enpresak sustatzeko sozietateen erregulaziorako araudian baimendutako edozein jarduera egin ahal izango du.

Sailkapena kontabilitate nazionalen


Finantza-erakundeak: beste finantza-bitartekari batzuk.

Kapital soziala

3.460.000 €

Kapital sozialaren osaera

Hazi Fundazioa	% 35,26
Ipar Kutxa Rural Kredituko Koop. S.	% 23,47
Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioa	% 11,79
Akzio propioak	% 29,48



Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Bittor Oroz Izaguirre jauna	Kontseiluburua. Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioa.
Jokin Gorriti Gonzalez jauna	Ipar Kutxa Rural Kredituko Koop. S.
Asier Arrese Zabala jauna	Hazi Fundazioa.
Bittor Oroz Izaguirre jauna	Hazi Fundazioa.
Iñaki Nubla Otaola jauna	Hazi Fundazioa.

Ekitaldiko urteko kontuak

[Auditoria-txostena eta urteko kontuen laburpena abenduaren 31n.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	4.339.416 €
Ondare garbia	2.834.245 €
Negozio-zifraren zenbateko garbia	166.028 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

Granja Modelo, z.g. - 01192 Arkaute (Araba)

Webgunea

www.hazilur.com